

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Beharko ditugun funtsezko baliabideak honako hauek dira:

- **Baliabide fisikoak:**

Lehenik eta behin aterkinak beharko ditugu gure produktuaren oinarria direlako. Errezelak beharko ditugu ere, hauek gardenak izan behar dira gure bezeroek ikusi dezaten kaletik ibiltzerakoan, hala ere, estampa batzuk izango dituzte, bezeroaren gustuen arabera. Azkenik, botoiak eta imanak erabiliko ditugu, botoiak errezela aterkinera lotzeko arduradunak izango dira eta imanak errezelak zabaldu edo itzi ahal izateko funtzioa izango dute. Produktuaren osagaietatik kanpo, lokala eta aterkina fabrikatzeko makineria daude.

- **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:**

Sortzaileok daukagun sormen erreztasuna, originaltasuna, teknologia berriekin ibiltzeko abilezia, hornitzaileekin haritzeko gaitasuna eta dirua modu arduratsuan kudeatzeko ahalmena da. Bakoitzak rol desberdin bat izango du enpresan:

Uxue: Webgunea sortzearen eta txukun eta ulergarria uztearen arduraduna izango da, gainera online egin behar diren aldaketen eta arazo konponkoten erantzulea izango da ere. Kargu hau atzikituz zaio informatika kurtsuak egiten baititu bere trebetasuna areagotzeko eta teknologia munduarekin zerikusia duenarekin aritzea ikaragarri gustatzen zaiolako.

Aizea: Publizitateaz arduratuko da, hau da, produktua promozionatuko du eta sare-sozialak eramango ditu, produktua kontsumito duten pertsonen egokitzuz. Aizea kargu honetarako pertsona aparta da, zeren eta irudimen handia du eta oso eguneratuta dago.

Ibone: Giza baliabideaz arduratuko da, hau da, langileekin harremanetarako da, oso enpatikoa delako eta oso ondo komunikatzen delako, gainera, oso zintzoa da. Ekoizpen-funtzioaren arduraduna.

Nadia: Finantza arloko arduraduna izango da. Kontabilitate kontuetan ona delako eta badaki nondik lortu finantziario iturri hobeak. Diru kontuetaz arduratzen da.

Oihane: Hornitzaileekin harremanetan jarriko da, baita produktuaren salmentaz ere arduratuko da, ere hitz egiteko erraztasuna duelako.

Enpresa handitzerako orduan, langile berriak behar izango ditugu. Orduan edozein pertsona bere curriculum-a ekartzen diguna kontuan izango genuke, berdin dio ezgaitasunenbat zein bizitza gogorra izan baduen.

- **Finantza-baliabideak:**

Finantza-baliabide bezala, gure aurrezkiak erabiliko ditugu. Hala ere, arazorik ez egoteko bazkide izateko 5.000€ jarri beharko dira, baina norbaitek diru gehiago inbertitu nahi baldin badu, enpresaren zati handiago bat izango zitzakeen. Izan ere, aurrerago bankuko mailegu bat behar izango dugu. Baina momentuz gure aurrezkiekin joango ginateke aurrera.